



Mutrikuko Udala

Mutriku
Herri
bizigarri



MUTRIKUKO KLIMA ETA ENERGIA JASANGARRIRAKO EKINTZA PLANA

JARRAIPEN PLANA

2025 otsaila

Proiektuaren izena:	Mutrikuko Klima eta Energia Plana. Jarraipen-plana.
Erakunde onuradura:	MUTRIKUKO UDALA
Aholkularitza-taldea:	IZADI 21 (Inguru 21, S.L.), LAIA Kooperatiba Elkarte Txikiarekin elkarlanean.
Data:	2025-02-03

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA AURREKARIAK	4
2. KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO MUTRIKUKO PLANA.....	4
2.1. PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA	4
2.2. EKINTZA-PLANAREN ESKEMA.....	6
2.2.1. IKUSPUNTU ESTRATEGIKOA	6
2.2.2. TOKIKO PLANAREN EGITURA.....	7
2.2.3. HELBURU ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK	7
2.3. JARRAIPEN-PLANAREN EZAUGARRIAK	15
2.4. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA: EKINTZEN DESKRIBAPEN FITXAK	18

1. SARRERA ETA AURREKARIAK

2024 urtean sinatu zen Mutrikuko Udalaren eta Izadi 21 (Inguru 21 S.L.) enpresaren arteko kontratua, zeinaren bidez 2030 urtera begirako Klimari eta Energiari buruzko tokiko plana idazteko zerbitzua arautzen den. Bertan, tokiko plana aurrera eramateko metodologia zehazteko asmoz, jarraipen-plana deritzona idatzi da. Hori dela eta, dokumentu honetan azaltzen da klimari eta energiari buruzko tokiko planaren kudeaketarako metodologiaren deskribapena.

2. KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO MUTRIKUKO PLANA

2.1. PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Ekintza-plana diseinatzeko prozesua honela gauzatu da:

1. **Antolaketa fasea:** 2024ko udaberrian proiektua eta bere fasean udal mailan aurkeztu ziren eta abiapuntuko egoeraren diagnostikoa idazteko informazio-iturrien bilaketa abiarazi zen. Era berean, prozesua osoaren irudia eratu zen (“Mutriku, herri bizigarria” lema du irudiak) eta udal web orriko ingurumenaren atalean prozesuaren inguruko informazioa barneratzeko azpi-atala eratu zen (https://www.mutriku.eus/eu/arloak/ingurumena/mutriku_herri_bizigarri).
2. **Diagnostikoaren idazketa:** 2024ko udaran diagnostikoa idazteko lanak hasi ziren eta diagnosiaren lehenengo bertsioa 2024ko irailean aurkeztu zen. Horrela, udazkenean, ekintza-plana diseinatzeko fasera igaro zen prozesua.
3. **Parte-hartze prozesuaren garapena:** udal barruan eta herriko sektore ezberdinekin parte-hartze modu ezberdinak eraman ziren aurrera, bai diagnostikoa osatzeko, baita ekintza-planari begirako ekarpenak jasotzeko ere (horietako batzuk aurrez aurrekoak izan ziren eta besteak baliabide digitalen bidez gauzatutakoak).

Aurrez aurrekoei dagokionez hauek izan ziren antolatutakoak:

- **Mutrikuko sektore zehatzei zuzendutako elkarrizketa-saioak:** 2024ko irailean antolatutako 2 saio izan ziren (udalerriko eragile ekonomikoei zuzendutakoa bat eta giza eragileei zuzendutakoa bestea).

- **Online elkarrizketak:** Erakunde lankideekin eta adituekin online elkarrizketak antolatu ziren: Debegesa, Debemen, Geopearkea, Jon Lekube aditua eta *Euskadi buceo* elkarteak.
- **Udal barruko koordinazio-taldea:** prozesua udal barruan gidatu duen organoa izan da eta behar den aldietan bildu izan da. Bertako kide izan dira udal jarduerari lotutako energiaren kudeaketarekin nahiz plangintza energetikoarekin zerikusia duten teknikariak eta udal ordezkariak.
- **PODCAST-ak:** Guztira 5 podcast prestatu ziren eragile ezberdinekin eta hauetatik ere informazio esanguratsua jaso izan da. Grabazioak udal web gunean entzungai daude.

4. Diagnostikoan antzemandako behar nagusiei erantzun egokia eman eta sustatu beharreko indarguneetatik abiatuz, Klimari eta Energiari buruzko Tokiko Plana lantzea:

Ekintza-plana lantzerako orduan diagnostikoaren ondorioak oinarritzat hartzeaz gain, honakoak ere aztertu ziren ekintza-planaren idazketa faseko une ezberdinetan:

- Antolatutako parte-hartze prozesutik eratorritako ekarpenak.
- Indarrean dagoen legedia (azpimarratu behar da 2024ko otsailean indarrean sartu zela klima-alaketaren eta energia jasangarriaren Euskadi mailako 1/2024 legea).
- Indarrean dauden arloko planak eta estrategiak (udal mailakoak -Mugikortasun plana, esaterako- nahiz udalaz gaundekoak - Debarrena eskualdeko Energia-plana, Klima Aldaketaren Euskadiko eta Gipuzkoa Estrategiak, eta abar-).

5. Prozesu osoan zehar behar bezalako komunikazioa lantzea:

- Prozesuaren irudiaren sorrera eta dokumentu ezberdinetan txertatzea.
- Prentsa-oharrak.
- Elkarrizketak antolatzeko gutunak.
- Udal web orrian klima eta energiaren tokiko planari buruzko informazioa barneratzea
- Podcastak (guztira 5), udal web orrian eskegitzeaz gain, 5 astetan zehar udalaren sare sozialetan partekatzeko (astero podcast bat).

6. Jarraipen-planaren idazketa: klimaren eta energiaren tokiko planaren edukia aurrera eramateko eta bere ezarpen-maila ebaluatzeko metodologia proposatzen duen dokumentua da. Bertan, ekintza-planean barneratutako ekintza bakoitzaren deskribapen fitxak biltzen dira, ekintzen ardura duten udal eragileek ekintzaren edukia garatzeko orduan zenbait orientabide eskuartean izan ditzaten (ekintzak gauzatzen lagun

dezaketen jarduerak, ekintzak aurrera eramateko epea, eta abar.). Era berean, ekintza-plana urtero ebaluatu ahal izateko udalak eskura dituen baliabide-sorta ere jasotzen du (1/2024 Legeak finkatzen du plan hauek gutxienez 2 urtean behin ebaluatu behar direla).

2.2. EKINTZA-PLANAREN ESKEMA

2.2.1. IKUSPUNTU ESTRATEGIKOA

Planaren helburuak lortzeko jarraitu nahi den norabidea definitzen du ikuspegi estrategikoak. Mutrikuko ikuspegiari dagokionez, udala, 2030era begira **klimaren aldeko ekintzan** dihardu, **klima neutraltasuna** lortu eta **erresilientzia** handitzeko bidean.

Era berean, udalak udalerriko **energia-eraginkortasuna** sustatu nahi du, berotegi-efektuko gasak **arintzeko** asmotan etxebizitza, ekonomia-jarduera, mugikortasuna eta lehen sektore eta elikaduran **energia-aurreztuz** eta autokontsumorako energia **berriztagarrien erabilera bultzatuz**. Halaber, udal ekipamenduen energia-eraginkortasuna eta aurrezpena bultzatu nahi ditu, herriko sektore ezberdinen aurrean eredugarri izateko.

Klima-aldaketaaren aurrean Mutriku **erresiliente** bihurtu nahi da lurralde, natura-ingurune, lehen sektore eta arriskuen ikuspegitik, gerta litezkeen uholde arrisku eta lehorten inpaktuetara egokituz eta herritarren osasuna eta segurtasuna bermatuz. Hori **guztia trantsizio ekosozialaren aldeko pauso irmoak emanez herritarrekin eta sektore ezberdinekin elkarlanean**.


Ikuspegi hori aintzat hartuz, ondorengo **7 Helburu Estrategikoak** zehaztu dira:

1. HE: UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN
2. HE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA
3. HE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA
4. HE: MUTRIKUKO HERRIA ETA HERRITARRAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEA
5. HE: MUTRIKUKO INGURUNE NATURALAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN ZAINZA
6. HE: UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEA
7. HE: KLIMA BABESTEARI LOTUTAKO UDAL GOBERNANTZA, KOMUNIKAZIOA, FORMAKUNTZA ETA KUDEAKETA-EREDUA GARATZEA, ERAGILE GUZTIAK AHALDUNTZEKO

1. Taula: Klimaren eta Energiaren tokiko planaren helburu estrategikoak

2.2.2. TOKIKO PLANAREN EGITURA

Plana lehen aipatutako helburu estrategikoetan antolatzen da. Era berean, helburu estrategiko hauetako bakoitza jarduera-programetan banatzen da. Programak, helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten helburu zehatzagoak dira. Azkenik, programak ekintzez osatuta daude:



2.2.3. HELBURU ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK

Klimaren eta energiaren tokiko plana osatzen duten 111 ekintzak horrela antolatzen dira:

KLIMA-ALDAKETA ARINTZEA:

1. HE: UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANTSIZIOAN

1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA

- 1.1.1. Udalaren energia-kontsumoen kontrolerako martxan jarritako plataforma energetikoaren gaineko jarraipen egin.
- 1.1.2. Eraikinen eta argiteria publikoaren auditoretza zaharkituen eguneraketak egin.



- 1.1.3. 70 kW baino potentzia termikoa baino txikiagoa duten eta kontsumo esanguratsua duten udal-eraikinetan energiaren arloko azterketa zehatzak egin.
- 1.1.4. Udal eraikin guztien kalifikazio energetikoak osatutakoan B azpitik daudenetan gutxienez kalifikazio hori lortzeko plangintza bat prestatzea, 2030 urtea baino lehen helburu hori lortzeko.
- 1.1.5. Etorkizunean udalak gauzatu ditzakeen birgaitze integraleko inbertsioetan edo udal eraikin berrien kasuan, kontsumo ia nuluko eraikinak izatea bermatzea.
- 1.1.6. Udal eraikinen isolamendua hobetzeko neurriak hartu.
- 1.1.7. Energia-kontsumo altua dakarten berokuntza- eta argiteria-instalakuntzen mantentze-lanak areagotu eta egoerak aztertu, aldez aurretik fasekako plangintza bat prestatuz eta ondoren beharrezkoak diren zuzenketak eginez.
- 1.1.8. Udal-eraikinetan klimatizazio-berokuntza sistema eraginkorrak ezarri, instalazio zaharrenak lehenetsiz eta progresiboki erregai fosilen erabilera gutxituz.
- 1.1.9. Udal-eraikinen argiteria eraginkorragoa denagatik aldatzen joan, aurretik adostutako argiteriaren ordezkatzeko plangintza baten bidez, behar denean sektORIZAZIO-neurriak ezarri.
- 1.1.10. Udal-eraikinen erradiadoreetan balbula termostatikoak instalatu eta kontsigna-tenperatura kontrolatzeko termostatoak instalatu.
- 1.1.11. Kale-argiteria publikoa LED teknologiarara aldatzen jarraitu, aldez aurretik zehaztutako plangintza baten baitan.
- 1.1.12. Edozein ekipo, tresna, produktu edo sistema eskuratzeko beharra dagoenean, energia-eraginkortasun altuenekoa izatea bermatzea.

1.2. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA

- 1.2.1. Udal eraikinetan energia berriztagarrien hedapena bultzatzea, eraikin bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuz, bakoitzean interesgarria den teknologia zehatza ezartzeko.
- 1.2.2. Energia berriztagarrien ezarpenari buruzko udal-ordenantza prestatu, Plan Orokorren berrikuspenean barneratuz.

2. HE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA

2.1. ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA

- 2.1.1. Kalteberatasun energetikoaren analisia eta jarduketa-protokoloa garatu.



Mutrikuko Udala



- 2.1.2. Autokontsumorako energia berriztagarriak ekoizteko sistemak martxan jartzen laguntzea.
- 2.1.3. Energia berriztagarrien komunitateak sustatu eta udala halako ekimenetan bidelagun izatea.
- 2.1.4. Udalak energia elektrikoa zein termikoa biltegitratzearekin lotutako proiektuak sustatu eta bultzatzea herritarrentzat.

2.2. EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA

- 2.2.1. Udalerriko enpresetan eta saltoki txikietan energia kudeaketarako tresnak eskuragarri jartzea eta herritarrengana iristeko komunikazioa indartzea, beraien energia-beharra aztertzeke aukerak erraztea eta irtenbide komunak bilatzea nahiz garatzen laguntzea, DEBEGESAren elkarlanean.
- 2.2.2. Mutrikuko industria sektorearen energia kontsumoa, karbono aztarna eta ekonomia zirkularraren gaiak aztertu eta eraginkortasuna hobetzeko egon daitezkeen baliabideen berri eman DEBEGESAren lankidetzan.
- 2.2.3. Lehen sektorearekin lotutako ekoizpena egiten duten zenbait jardueretan (nekazaritza, abeltzaintza) energia kontsumoen gaineko azterketak egitearen bidez lehen sektorearen energia kontsumoen azterketa osatu eta nekazari eta abeltzainekin batera gastu energetikoa eta ekonomikoa murrizteko neurriak adostu, DEBEMENen eskutik

3. HE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA

3.1. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA

- 3.1.1. Udal-langileen artean telelanerako aukera erraztu, joan-etorriak ekiditeko.
- 3.1.2. Garraio partekatua sustatu bai herritarren bai udaleko langileen artean.
- 3.1.3. Udal ibilgailu elektrikoek karga puntuak instalatu eta kontsumoen kontrolerako kontadore zehatza ezarri.
- 3.1.4. Udalaren ibilgailu-flotaren mantenu- eta eraberritze-plangintza bat definitu.
- 3.1.5. Herri barruko mugikortasunean oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko eta kotxeari mugak jartzeko neurri ezberdinak aztertu eta martxan jarri.
- 3.1.6. Bidegorri sarea zabaltzeko aukerak aztertu eskumena duten erakundeekin elkarlanean.
- 3.1.7. Bizikletentzako aparkaleku gehiago eta estaliak jartzea eta herrien arteko lankidetzan azpiegitura hobetzea, bizikleta bidezko joan-etorri kopurua handitzeko.
- 3.1.8. Bizikletaren erabilera bultzatzeko neurriak eta aukerak aztertu eta bideragarriak direnak abian jarri industria eta hezkuntzako eragileekin elkarlanean.

- 3.1.9. Udalerriko gunee ezberdinetara iristeko dauden aldapak ekidin eta irisgarritasuna bermatzeko igogailu berrien ezarpena aztertu.
- 3.1.10. Garraio publikoaren aldeko udal apustua sendotu, lanerako, ikasketa guneeetarako eta hiriguneetarako loturak ahalbidetzeko bidea eginez eskumena duten erakundeekin elkarlanean.

3.2. EKONOMIA ZIRKULARREAN SAKONTZEA

- 3.2.1. Ikastetxeekin elkarlanean jangeletako janari-xahutzeari irtenbidea emateko ekimenak adostea eta martxan jartzea.
- 3.2.2. Herriko HORECA eta Turismo arloko eragileen inplikazioa bilatu ekonomia zirkularrari eta hondakinen prebentzio eta kudeaketari dagokionean.
- 3.2.3. Herriko gainerako sektoreekin ekonomia zirkularraren baitan garatu daitezkeen proiektuen inguruko lanketa bat abiarazi.
- 3.2.4. Hiri-hondakinak sortzeagatiko tasa ezartzeko asmoz beharrezkoak diren egokitzapenak egin.
- 3.2.5. Herrian bertan kudeatzen den hondakin organikoaren ehunekoa handitzeko asmoz, etxeko konposta indartzeko programa abian jarri eta auzo konposta guneen erabilera hobetzeko plangintza bat adostu.
- 3.2.6. Barreiatutako hondakinen arazoei aurre egiteko neurriak ezarri, mankomunitatearekin elkarlanean.

KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA:

4. HE: MUTRIKUKO HERRIA ETA HERRITARRAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEA

4.1. HERRITARREN ONGIZATEA ETA OSASUNA ZAINZEA

- 4.1.1. Udalerriko mapa termikoa egitea puntu kritikoak identifikatu eta neurriak hartzeko.
- 4.1.2. Muturreko tenperaturen eta bero-boladen aurreikuspenen aurrean herria prestatu, udalerriko gunee freskoak herritarrei ezagutaraziz eta konfort termikoa eskaini dezaketen udal-eraikinak herritarrei zabalduz.
- 4.1.3. Muturreko fenomeno meteorologikoen aurrean aire librean lan egiten duten langileen babesa bermatzeko neurriak ezarri.
- 4.1.4. Herriko iturri publikoen mapa egin, egokitasuna aztertu eta hobekuntzak proposatu.



- 4.1.5. Klima-aldaketaren aurrean zaurgarrienak diren herritar-taldeak identifikatu, horiei zuzendutako baliabideak diseinatu eta egokitu ahal izateko.
- 4.1.6. Herriguneko kale estu eta freskoetarako irisgarritasuna bermatu.
- 4.1.7. Klima-aldaketaren ondoriozko muturreko fenomenoaren aurrean alerta goiztiarreko sistemak eta jarduketa- eta informazio-komunikazioko protokoloak egitea.

4.2. HERRIKO AZPIEGITURAK EGOKITZAPENERAKO PRESTATZEA

- 4.2.1. Ibai-uholdeak gertatzeko arrisku handiena duten udalerriko eremuak identifikatu eta euriteen kasuan martxan jartzeko protokoloa idatzi.
- 4.2.2. Euri-uholdeen eraginez Mutrikuko bide-sareak izango lituzkeen mozketa eta arazoak neurtu eta alternatibak proposatu.
- 4.2.3. Muturreko tenperaturek linea elektrikoetan eta uholdeek azpiestazio elektrikoetan eragin ditzaketen kalteak murrizteko neurriak hartu.
- 4.2.4. Hiri-azpiegitura berdea identifikatu, mantendu eta hedatzeko neurriak proposatu.

4.3. KOSTALDEA BABESTEA

- 4.3.1. Itsas-mailaren igoerak herrian izan ditzakeen kalteak balioetsi eta hiri-azpiegiturak egokitu.
- 4.3.2. Kostaldeko uholdeen aurrean Saturraran eta Ondarbeltz babesteko neurriak aurreikusi.
- 4.3.3. Denboraleek sortuko lituzketen olatuek Mutrikuko kaian eragin ditzaketen kalteak aurreikusi eta egoera horietan jarduteko protokoloa landu.
- 4.3.4. Kostaldeko babes-egiturak berrikustea eta behar direnak egokitzea olatuak barreiatzeko eta kostaldeko lerroa babesteko.
- 4.3.5. Itsaslabarrak egonkortzeko jarduerak aurrera eramatea.
- 4.3.6. Urbanizazio-kotaren gehikuntza posiblea aztertzea.
- 4.3.7. Ubideak herrigunera bideratu beharrean Ondarru eta Saturraran erreketara bideratzeko lanak egin, eskumena duten erakundeekin elkarlanean.
- 4.3.8. Ubideen ertzak babestea eta birgaitzeko jarduerak gauzatzea.
- 4.3.9. Uholdeen eta kostaldeko higaduraren aurreko arrisku-maila handien eraginpean dauden kostaldeko lurak eskuratzeko aukerak aztertzea.

4.4. OINARRIZKO NATUR BALIABIDEAK ZAINTEZA

- 4.4.1. Drainatze-jasangarriko sistemak udalerrian jartzea baloratu.
- 4.4.2. Lehorte garaietan uraren kudeaketa egokia egiteko plana diseinatu.
- 4.4.3. Elikadura sistema burujabe baterako aldaketa ahalbidetuko duen udal estrategia landu, besteak beste, lurra eta ur-baliabideak babestuz.

- 4.4.4. Lurra zaintzeko proiektuak gauzatzea, naturaren kontserbazioarekin eta bertako produktuen ekoizpenarekin lotuta.

5. HE: MUTRIKUKO INGURUNE NATURALAREN ETA BIODIBERTSITATEAREN ZAINZA

5.1. BASO EREMUAK ETA EUREN FUNTZIO EKOLOGIKOA BABESTEAK

- 5.1.1. Jabetza pribatua duten udalerriko baso-eremuak pixkanaka publiko egiteko plangintza bat landu, basoaren ustiapen jasagarria egiteko helburuarekin.
- 5.1.2. Baso-jabe pribatuei zuzendutako bestelako sustapen neurriak hartzeko aukerak baloratu.

5.2. UR EKOSISTEMAK BABESTEAK

- 5.2.1. Mutrikuko kostaldean itsasoko espezieak babesteko ekimenak aurrera eraman.
- 5.2.2. Hondakin solidoak zein isuriak itsasora heldu ez daitezen neurriak hartu.
- 5.2.3. Degradatutako ibaiertzeko eremuak leheneratu/birnaturalizatu eta ertzak egonkortu, Ura Euskal Agentziarekin lankidetzan.
- 5.2.4. Udalerriko ur-ekosistemen inbentarioa eta horren jarraipena egin.

5.3. LEHORREKO EKOSISTEMAK BABESTEAK

- 5.3.1. Natura 2000 sarearen baitan kokatuta dagoen Arno mendiaren ezaugarriak eta babesa mantendu.
- 5.3.2. Lehorreko ekosistemen arteko konektibitate ekologikoa erraztu dezaketen proiektuak abiarazi eta horiek lagundu.
- 5.3.3. Udaleko lorezaintza zerbitzuan klima-aldaketara egokitzearekin eta biodibertsitatea zaintzearekin zerikusia duten irizpideak txertatu.
- 5.3.4. Tenperaturaren igoeraren ondoriozko espezieen galerari eta plaga berriei aurre egiteko neurriak hartu.

6. HE: UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOAK KLIMA-ALDAKETAREN ERAGINEN AURREAN BABESTEAK.

6.1. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA SUSTATU ETA BABESTEAK

- 6.1.1. Mutrikuko lehen sektoreko eragileen ekoizpena merkaturatzeko aukerak aztertu.
- 6.1.2. Debemenekin elkarlanean lehen sektoreko ekoizleei sostengua eman eta ekoizle berriak bultzatu eta babestu.
- 6.1.3. Merkatu-plaza indartzeko eta herritarra erakartzeko ekimena sustatu.
- 6.1.4. Hezkuntza sektoreko, industria sektoreko edo bestelako eragileen jangela kolektiboetan herrian bertan ekoiztako produktuak txertatu ote daitezkeen aztertu eta txertatze hori bultzatu.
- 6.1.5. Mutrikuko ostalaritza sektorean herrian bertan ekoiztako produktuak txertatu ote daitezkeen aztertu eta txertatze hori bultzatu, garapen sailarekin batera.
- 6.1.6. Udalak antolatzen dituen ekimenetan eskualdeko ekoizleen produktuak erabiltzen direla bermatu.
- 6.1.7. Klima-aldaketaren eraginez sortuko diren lehortee udalerriko nekazaritza jardueran eragin dezaketen kaltea balioetsi.
- 6.1.8. Klima aldaketaren ondorioz arrantza sektoreak izan dezakeen bilakaera aztertu, artisau arrantza eta akuikultura ekologikoan oinarrituta, herriko ekonomia egitura dibertsifikatzeko.
- 6.1.9. Arrantza modu jasangarriagoen berri eman eta horiek bultzatu.
- 6.1.10. Udalerriko lehen sektorearekin batera sasoikoaren eta bertakoaren garrantzia landu eta herritarrentzako sentsibilizazio kanpainak egin.

7. KLIMA BABESTEARI LOTUTAKO UDAL GOBERNANTZA, KOMUNIKAZIOA, FORMAKUNTZA ETA KUDEAKETA-EREDUA GARATZEA, ERAGILE GUZTIAK AHALDUNTZEKO.

7.1. UDAL BARRUKO EGITURA SENDOTU

- 7.1.1. Urtero Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Efektuko Gasen isurpenen azterketa egitea, energia eta klima-aldaketaren ekintzaren ezarpenetik aurrera isurpenen murrizketa gertatzen den behatzeko eta dagozkion neurriak aplikatzeko.
- 7.1.2. Klima eta energiaren ekintza-planaren urteko ebaluazioa ahalbidetu eta bertako ondorioetatik abiatuz urte batetik besterako jardueren programazioa landu.
- 7.1.3. Klima-aldaketa eta energiaren jasangarritasunari dagokion udal barneko lantaldea sortu, 1/2024 Legeak jasotzen duen udal batzordearen funtzioak izan ditzan.



- 7.1.4. Ingurumenaren arloko fiskalitatean sakondu, energia-trantsizioan, natur baliabideen erabilera arduratsuan eta hondakinen murrizketa sustatu ditzaketen neurri fiskalak bultzatuz.
- 7.1.5. Udal erosketetan eta zerbitzuen kontratazioan jasangarritasun irizpideak txertatzeko plangintza landu, udalaren eta bere hornitzaileen karbono-aztarna murrizteko.
- 7.1.6. Eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari eta klima-alaketaren arloko udal eskumenekin zerikusia duen prestakuntza-saioak eskaintzea udal-langileei nahiz udal-hautetsiei.

7.2. HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA INDARTU

- 7.2.1. Udalaren izaera eredugarria bultzatzeko asmoz, udal energia eta klima-alaketaren planaren inguruko garapenaren berri ematea.
- 7.2.2. Debararrenako Garapen Agentziak energiaren baitan eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa herritarrei iristeko neurriak martxan jartzea.
- 7.2.3. Fiskalitate berdean indarrean dauden hobari fiskalen berri eman sektore ezberdinei.
- 7.2.4. Etxebizitza-eraikinen birgaitzean energia-eraginkortasuna sustatzeko neurrien berri ematea.

7.3. HERRIKO SEKTORE EZBERDINEI ZUZENDUTAKO SENTSIBILIZAZIOA AREAGOTU

- 7.3.1. Ikastetxeetan klima-alaketaren eta energia eraginkortasunaren inguruko formakuntza- eta sentsibilizazio-kanpainak indartu.
- 7.3.2. Herritar guztiek energia trantsizioa eta klima-alaketaren gainean duten ezagutza areagotzeko formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak antolatu.
- 7.3.3. Herrian bertan eragile ezberdinek egiten dituzten energiaren arloko inbertsioak ezagutarazi eta praktika on moduan komunikatu.
- 7.3.4. "Geoparke zaleak" bezalako egitasmoa bezalakoei zabalkundea eman, besteak beste ekoturismoan lan egiten duten enpresak erakartzeko eta hauei jasangarritasun irizpideak barneratzen laguntzeko.
- 7.3.5. Itsasoko eta kostaldeko ekosistemetan tenperatura igotzeak duen arriskuari buruzko ezagutza sortu udalerrian.

7.4. SEKTORE EZBERDINAK KLIMA-ALDAKETAREN AURREAN ERAGILE AKTIBO IZATEKO PARTE-HARTZE BIDEAK SUSTATU

- 7.4.1. Parte-hartze mekanismo ezberdinetan klima-alaketaren aldagaia txertatzeko bideak aztertu eta eragile ezberdinek udalarekin batera halako politikak definitzeko bideak ezarri.

- 7.4.2. Ikastetxeetako instalazioetan jasangarritasunaren baitan inbertsioak egiteko eskaintzan diren dirulaguntzak baliatu ahal izateko formulak bilatu, udalarekin elkarlanean.
- 7.4.3. Geoparkearekin elkarlana indartzea, bere kide diren hiru udalerriekin egiten duen zubi-lana probesteko eta hauen arteko dinamikak sortzeko klima-aldaketa eta energia trantsizioaren baitan.

2.3. JARRAIPEN-PLANAREN EZAUGARRIAK

Klima eta energiaren tokiko planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko metodologia proposatzen duen dokumentua da. Bertan, ekintza-planean aurrera eramango diren pausoen inguruko informazioa eta epeak zehazten dira. Azken honi dagokionez, ekintzak abian jartzeko data eta amaiera datak zehaztu dira.

Klima eta energiari buruzko tokiko planen ebaluazio eta jarraipena egiteak bultzada emango dio Udalak hartutako konpromisoen eta arauzko betekizunen gauzatze mailari. Klimaren babesari eta energia trantsizioaren aldeko Mutrikuko planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko, jarraian zehazten diren **zereginak** eta hauek aurrera eramateko **tresnak** jasotzen dira:

1. **Planaren urteko gauzatze maila ebaluatzea:** planaren urteko betetze-mailaren ebaluazioa egitea, Udalsarea 2030eko udalerri guztientzat estandarizatutako metodologia komun bat erabiliz; hau da, e-mugi tresnaren “ebaluazioa” atalaren bitartez¹. Modu honetan, emaitzen irakurketa global eta partziala egitea ahalbidetzen du, eta baita, Garapen Jasangarriko Helburuei egiten zaien ekarpena aztertzea ere. Aipatzekoa da 2023 urtean lhobek eskaini zuela aurrenekoz klimaren eta energiaren tokiko planak ebaluatzeko zerbitzua. Ondorioz, Mutrikuko Udalak bere ekintza-plana onartu ondoren, aukera izango du klimaren eta energiaren tokiko plana emugiko atal hori baliatuz ebaluatzeko eta ebaluazioaren emaitzak aztertuz, honakoak gauatzeko:
 - ✓ Planaren berrikuspena: 1/2024 Legearen 18. artikuluan ekintza-planak 2 urtean behin ebaluatu eta jarraipena egin behar dela ezartzen du (“e. *Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko arauak. 5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalen kasuan, bi urtean behin, beren planen betetze-mailari buruzko txosten bat egin eta onartu behar dute.*”).
 - ✓ Jarduerak hurrengo urteetarako programatzea.

¹ <https://www.udalsarea2030.eus/tokiko-ekintza-ebaluatzeko-programak-eta>
<https://www.udalsarea2030.eus/e-mugi-sarbidea>

DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDEAK **PLANGINTZA ETA KUDEAKETA** ADIERAZLEAK / PARAMETROAK TXOSTENEN ZERRENTA LABURPEN TXOSTENA

Tokiko Ekintza Plana (TEP)

Epea: Aukeratu Lehenetasuna: Aukeratu Ezarpen-maila: Aukeratu

Arduraduna: Aukeratu Gai-arloa: Aukeratu GJH: Aukeratu

Sektorea: Aukeratu Ardatza: Aukeratu

BILATU **EZABATU IRAGAZKIA**

ZABALDU ZUHAITZA **ITXI ZUHAITZA** **ZUTABEAK ERAKUTSI** **ESPORTATU**

Kod	Ekintzaren izena	Gai-arloa	GJH	Ardatza	Sektorea
1	Udala (Continued on the next page)				
1.1	Energia efizientzia (Continued on the next page)				

EKINTZA PLANA **EBALUAZIOA**

JARDUERAK: EBALUAZIOA ETA PROGRAMAZIOA

EKINTZAREN EBALUAZIOA

1. eta 2. Irudiak: Planaren urteko gauzatze maila ebaluatzeko e-mugi tresnaren ebaluazioa atala.

- 2. Emaitzen jarraipena egitea adierazleak oinarritzat hartuta:** Garapen Jasangarriaren Udal Adierazleak urtean behin kalkulatzea, adierazle hauen bilakaera aztertzea eta EAEko batez besteko balioekin alderatzea. Horretarako, Udalsarea 2030eko udalerrri guztientzat eskuragarri dagoen e-mugi tresnaren “adierazleak” atala erabili daiteke.

Adierazlea		
03_02 Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua	bidaiari kopurua	GEHITZEA
Definizioa: Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua.	Metodoa: Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua	Formula: $n(13)$
	Iturri: Tokikoa	Adirazle Iturria: Udala, hiri garraioa kudeatzen duen konpainia
	Balioa Ref:	Iturri Balorea Ref:
	Gai-arloa: 03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA	GJH: 11 Hiri eta komunitate jasangarriak

DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDEAK
PLANGINTZA ETA KUDEAKETA
ADIERAZLEAK / PARAMETROAK
TXOSTENEN ZERRENDA

PARAMETROAK
ADIERAZLEAK
BEG PARAMETROAK

Sistema: ☒ Gai-arloa ikuspegi ☐ GJH ikuspegi

	Adierazlea	Mota	Iturria	GJH
01 LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA				
IKUSI	01_01 Lurzoru artifizializatua	Oinarritzkoa	Udalaz gairikoa	11 Hiri eta komunitate jasagarriak
IKUSI	01_03 Bizitegi-lurzoruaren erabileraren intentsitatea	Oinarritzkoa	Tokikoa/ Udalaz gairikoa	11 Hiri eta komunitate jasagarriak

3. eta 4. Irudiak: Adierazleak oinarritzat hartuta planaren emaitzen jarraipena egiteko e-mugi tresnaren adierazleak atala.

- Udalerriko Berotegi Efektuko Gasen inbentarioa kalkulatzeko:** BEG inbentarioa tresnaren bidez hurrengo sektoreei lotutako berote-efektuko gasen emisioen urteko kalkulua egitea eta era horretan Mutrikuko klima- eta energia-planaren helmugak (helburu kuantitatiboak) lortzeko bidean ote gauden aztertu ahal izango du Udalak: mugikortasuna, bizitegiak, zerbitzuak (Udala barne sartuta), hondakinak eta lehen sektorea. **Kalkulua urtero eginez gero, Mutrikuko ekintza-planaren ezarpenari esker lortu nahi diren arintzearen helmugak lortzeko bidean ote gauden neurtu ahal izango du udalak** eta horren arabera dagokion erabakiak hartu.
- Udalaren karbono-aztarna kalkulatzeko:** Karbono-aztarna tresnaren bidez Udalaren jardunari lotutako hurrengo sektoreen BEG isurketen urteko kalkulua egitea: eraikinen eta argiteria publikoaren kontsumo energetikoa eta udal ibilgailuen erregai kontsumoa aintzat hartzen ditu, besteak beste. **Kasu honetan, udal jardunari dagozkion ekintza-planeko ekintzak aurrera eramanez ezarritako helburu kuantitatiboak lortzen ari ote garen neurtu ahal izango da** eta horietatik abiatuz erabaki egokiak hartu.
- Emaitzak komunikatzeko eta kontuak emateko:** Klima eta energiari buruzko tokiko planaren ebaluazio- eta jarraipen-prozesuaren emaitzak ezagutzera ematea eta konpartitzea, urteko (edo bi urteko) txosten baten bidez. Bertan, planaren aurrerapenen laburpena eta baita jarraipen-adierazle nagusien emaitzak ere jasoko dira. Gainera, 4/2019 Legeak (14. artikulua) eta 1/2024 Legeak (54. artikulua) planaren ezarpenarekin zerikusia duten aurrerapenak komunikatzeko betebeharra ezartzen du.

6. **Alkateen itunari planaren aurrerapen eta emaitzez informatzea** (Mutrikuko Udalak Itunarekin bat egingo balu aplikagarri litzateke): Alkateen Klima eta Energia Ituna nazioarteko ekimen bat da, eta bertan biltzen direnek, beren borondatez klimaren eta energiaren nazioarteko helburuak ezartzeko konpromisoa hartzen dute. Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Itunari atxikita² dauden udalerriek Itunaren jarraipenerako online formularioa bete beharko dute, BEG inbentarioaren datuak eta bi urtetik behingo neurrien gauzatze maila adieraziz.

2.4. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA: EKINTZEN DESKTRIBAPEN FITXAK

Hurrengo orrietan ekintza-planak dituen 109 ekintzen deskribapen fitxak jaso dira. Ekintza bakoitzari lotutako honako atalak jaso dira:

- Ekintzaren kodea eta izenburua
- Erlazionatutako helburu estrategikoa
- Erlazionatutako jarduera-programa
- Deskribapena (ekintza-aurrera eramateko jardueren multzoa)
- Ekintzaren arduradun nagusia eta halakorik bada, bestelako arduradunak
- Ekintzaren hasiera-urtea eta amaiera-urtea
- Ekintza jarraitua den ala ez zehaztea
- Lehentasun-maila
- Aurrekontua
- Erlazionatutako Garapen Jasangarriko Helburua
- Erlazionatutako beste udal planak, halakorik bada
- Oharrak, halakorik bada
- Klima-aldaketa arintzeari edo egokitzeari lotutako zein sektoreri eragiten dion
- Aurrezpen energetikoa eta saihestutako BEG isuriak.

² Informazio gehiago hemen: <https://eu-mayors.ec.europa.eu/es/home?etrans=es>

KARAKTERIZAZIO - FITXAK

Kodea	1.1.1	Ekintza	Udalaren energia-kontsumoen kontrolerako martxan jarritako plataforma energetikoaren gaineko jarraipena egin.					
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANTSIZIOAN							
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA							
Deskribapena	EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 12. artikuluan zehazten du, lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, energia elektrikoaren kontagailuak eduki beharko dituztela Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikin eta instalazio guztiek, eta kontagailu horiek gai izan beharko dute ordubete baino gutxiagoko denbora-tartean karga-kurba transmititzeko, erregistratzeko eta teleneurketa egiteko. Eta kontagailuen bidez lortutako informazioa eskuragarri egongo dela, gutxienez egunero eta modu zentralizatuan, eraikin eta instalazio guztietarako. Gainera, eraikin bakoitzaren energia-kontsumoa urtean behin kontrolatzea eskatzen da, hilabeteetan oinarrituta. Erabilitako energia guztien kontsumoak eta haien kostu ekonomikoa hartuko dira kontuan kontrolean. Mutrikuko Udalak udalaren energia-kontsumoaren kontrolerako ezarrita duen SIE Inergy plataformaren bitartez eguneraturik ditu udaleko eraikinen, kale argiteriaren eta udal ibilgailuen energia-kontsumo ezberdinak (elektrizitatea eta erregaia). Plataforma honen eta energia-kontsumo hauen jarraipena egitean datza ekintza hau eta horretarako udalak jarraipena egingo duen langilea izendatzea garrantzitsua litzateke.							
Arduradun nagusia	ENERGIA TEKNIKARIA ETA ELEKTRIKARIA							
Beste arduradunak	-							
Epea	Hasiera urtea	2024		Amaiera urtea	2030		Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	BAXUA			Aurreikusitako kostua (€)		3.000€/urtean		
GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA							
Erlazionatutako plana:	-							
Oharrak	4/2019 legearen 12. atala betetzea. Energia kontsumoen monitorizazioak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murritzetarik ekartzen. Ondorioz, ez da zenbatetsi.							
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)			-		



Mutrikuko Udala



Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO₂)	-
---	----------	--	---

Kodea	1.1.2	Ekintza	Eraikinen eta argiteria publikoaren auditoretza zaharkituen eguneraketak egin.			
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN					
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA					
Deskribapena	EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 13. artikuluan zehazten du, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean dagokien auditoretza energetikoa eginda eduki behar dutela 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eraikinek. Bestalde, Kanpoko argiteria publikoari aparteko auditoretza energetikoa egingo zaio; nolanahi ere, kanpoko argiteria publikoa osatzen duten osagaiak berritzea eta gutxitzea izan behar du lehentasun, pertsonen edo instalazioen segurtasunagatik posible ez den kasuetan izan ezik, eta bide publiko bakoitzerako argiztapen maila egokien aldez aurreko azterketa ere egin beharko da. Udal-eraikinen eta argiteria publikoen auditoretzak eguneratuta mantentzearen beharra ere jasotzen da. Auditoretza energetikoak 4 urtean behin berritzea eskatzen da. Energia aurrezpena bilatzen duen edozein ekintza planteatu aurretik ezinbestekoa da eraikinen eta bere instalakuntzen kontsumo energetikoaren inguruko informazio objektiboa izateko, aurretik bere azterketa oso bat izatea. Modu honetara ekintzaren inpaktua aztertzeko eta hau beste batzuk baino lehenago egiteko komenentzia jakingo da. 2022an Mutrikuko Udaletxea, Ikastola eta Polikiroldegiko auditoretzak osatuta zeuden eta 4 urte beranduago, 2026an berritu beharko dira hauek. 2022 eta 2023 urteetan 20 udal eraikinen energia ziurtagiriak egin zituen udalak eta hauek 10 urte beranduago eguneratu beharko dira, 2032 eta 2033. Urteen artean alegia. Halaber, 2023an egin zen argiteria publikoko auditoretza eta 2027. urtean berritu beharko da.					
Arduradun nagusia	ENERGIA TEKNIKARIA ETA ELEKTRIKARIA					
Beste arduradunak						
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	BAXUA		Aurreikusitako kostua (€)		15.000€ inguru orotara.	
GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
Erlazionatutako plana:	-					

Oharrak	4/2019 Legearen 13. atalaren betetzea. Energiaren Euskal Erakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak argitaratu ohi ditu energia auditoretzak gauzatzea errazteko. Auditoretza energetikoak egiteak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik lortzen.		
Sektorea	Udala	Aurrezpen energetikoa (kWh)	-
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO₂)	-

Kodea	1.1.3	Ekintza	70 kW potentzia termikoa baino txikiagoa duten eta kontsumo esanguratsua duten udal-eraikinetan energiaren arloko azterketa zehatzak egin.				
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANTSIZIOAN						
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA						
Deskribapena	Auditoretza energetikoa egitera behartuta ez badaude ere, 70 kw-ko potentzia termikora iristen ez diren eraikinetan ere, azterketa zehatzak egitea gomendatzen da kontsumo altuak (berokuntza sistemetan batez ere) erregistratzen badituzte. Hartara, behar diren zuzenketak programatu ahal izango dira eta energia-aurrezpenak erdietsi. Lehendabizi ezaugarri hauek dituzten lokalen zerrenda osatuko du Udalak. Energia aurrezpena bilatzen duen edozein ekintza planteatu aurretik ezinbestekoa da eraikinaren eta bere instalakuntzen kontsumo energetikoaren inguruko informazio objektiboa izateko, egunez eguneko kontsumoen kontrola eramatea edo/eta aurretik bere azterketa oso bat izatea. Modu honetara ekintzaren inpaktua aztertzeko eta hau beste batzuk baino lehenago egiteko komenentzia jakingo da.						
Arduradun nagusia	ENERGIA TEKNIKARIA ETA ELEKTRIKARIA						
Beste arduradunak	-						
Epea	Hasiera urtea	2026		Amaiera urtea	2027	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	ERTAINA			Aurreikusitako kostua (€)		€	
GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA						
Erlazionatutako plana:	-						
Oharrak	254/2020 Dekretuaren 19. artikulua dio eraikin guztiek izan behar dutela auditoretza energetikoa. Energia azterketek bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik ekartzen. Ondorioz, ez da zenbatetsi.						
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)		-		
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		-		

Kodea	1.1.4	Ekintza	Udal eraikin guztien kalifikazio energetikoak osatutakoan B azpitik daudenetan gutxienez kalifikazio hori lortzeko plangintza bat prestatzea, 2030 urtea baino lehen helburu hori lortzeko.			
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANTSIZIOAN					
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA					
Deskribapena	EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 19. artikuluan zehazten du, B mailako kalifikazio energetikoa baino baxuagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikinen % 40k kalifikazio hori hobetu beharko dutela B mailaraino, gutxienez, 2030. urtea baino lehen, salbu eta 3.2 artikulua araberako justifikatutako arrazoi bat dagoen. Kalifikazio energetikoa hobetzeko lehentasuna emango zaio betiere energia-kontsumoaren murrizketari eta ez isurketen murrizketari, energia-eskaeraren adierazle partzialetan maila bat gutxienez hobetuz. Mutrikuko Udalaren eraikin gehienek ezaugarri arkitektonikoak direla eta (ondare-eraikinak, hainbat babes-mota, etab.) horien zati bat legearen atal honetan ezarritako helburua lortzeki salbuetsita egon daiteke. Hala ere, birgaitu egin beharko dira, alderdi energetikoa kontuan hartuz eta ahalik eta kalifikazio onena lortuz eraikin bakoitzak izan ditzakeen baldintzen barruan. Energia eraginkortasun-ziurtagiriari eginga zuten Mutrikuko 20 udal eraikinek eta hauen erdiak (11 eraikin) D kalifikazio energetikoa du, zehazki % 55ek; beste % 30ak (6 eraikinek), E kalifikazioa dute; soilik % 10ak, hau da 2 eraikinek, zehazki polikiroldegiak eta futbol zelaia dute C kalifikazioa, eta azkenik, eraikin bakarrak, Frontoiak, du F kalifikazioa. Momentuz ez dago A edo B ziurtagiria eskuratu duen udal eraikinik. 2030 urterako 20 eraikinetik 8k (% 40) A edo B kalifikazioa eduki beharko dute. Eraikinek Mutrikuko Udalaren energia-kontsumo osoaren % 61 suposatzen dute. Eraikin guzti horien artean 2 dira kontsumoaren ia % 40aren erantzule, Goizeko Izarra ikastola eta kiroldegia. Hauen gainean plangintza bat zehaztuko da, 2030erako estrategia definituz.					
Arduradun nagusia	UDAL ARKITEKTO TEKNIKOA ETA ENERGIA TEKNIKARIA.					
Beste arduradunak	ELEKTRIKARIA					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	ALTUA			Aurreikusitako kostua (€)		€



Mutrikuko Udala



GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA		
Erlazionatutako plana:	-		
Oharrak	4/2019 Legearen 19. eta 28. atalen betetzea.		
Sektorea	Udala	Aurrezpen energetikoa (kWh)	-
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO₂)	-

Kodea	1.1.5	Ekintza	Etorkizunean udalak gauzatu ditzakeen birgaitze integraleko inbertsioetan edo udal eraikin berrien kasuan, kontsumo ia nuluko eraikinak izatea bermatzea.			
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN					
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA					
Deskribapena	EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legearen 20. artikulua arabera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek energia-kontsumo ia nulukoak izan behar dute. Hala izan beharko dute aurretik dauden eraikinek ere, eraberritze integralak egiten badizkiete, obra horiek lege hau onartu eta bi urtetik aurrera hasten badira, edo aplikagarri dakeien araudiak hala esaten duenetik aurrera. Kasu honetan ere, birgaitze energetikoaren bidez energia-kontsumo ia nuluen helburua lortzeko ezintasuna teknikoki justifikatzen duten eraikinak (balio arkitektoniko edo historikoagatik babestutako eraikin eta monumentuak, edo tailerretara, prozesu industrialetara eta bizitegikoak ez diren nekazaritzara bideratutako industria- eta nekazaritza-eraikinak) legearen artikulua hau betetzetik salbuetsita egongo dira. Garapen sailetik Santa Katalina konbentuaren eraberritze integrala burutuko da eta kontsumo ia nuluko eraikina izango da.					
Arduradun nagusia	UDAL ARKITEKTOA ETA UDAL ARKITEKTO TEKNIKOAK					
Beste arduradunak	GARAPEN TEKNIKARIA					
Epea	Hasiera urtea	2024	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	ERTAINA		Aurreikusitako kostua (€)		4.000.000 € (konbentuaren birgaitze kostua)	
GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
Erlazionatutako plana:	-					
Oharrak	4/2019 Legearen 20. Atalaren betetzea.					
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)		-	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		-	

Kodea	1.1.6	Ekintza	Udal eraikinen isolamendua hobetzeko neurriak hartu.
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN		
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA		
Deskribapena	Eraikin baten kontsumoaren barruko beste elementu garrantzitsu bat eraikinaren inguratzailea da. Maniobra-marjina txikiagoa bada ere, horrek ez du esan nahi kontsumoa nabarmen murrizteko neurririk proposatu ezin denik. Inguratzailea eraikinaren eskari termikoa baldintzatzen duten elementu pasiboen parte da. Eraikinaren energia-eskaria gutxitzera bideratutako estrategiak daude, neurri pasibo gisa ezagutzen direnak. Eraikinen isolamendua hobetzeko neurrien artean ohikoak dira leihoen aldaketak, aire-infiltrazioak murrizteko sistema pasiboen erabilera, teilatu eta fatxaden isolamendua eta barne isolamendua bezalako jarduerak. Udal kiroldegiko energia auditoretzan (2022an burutua) eraikinaren isolamendua hobetzeko hainbat neurri proposatzen badira ere, ez dira gomendatzen. Hala ere, hobetu aztertu beharko litzateke. - Kanpoko isolamendu termikoko sistema (SATE) fatxadetan: Teknika honen metro koadroaren kostua 83,11 €/ m2 da, hau da, 142.951,64 €-ko inbertsioa ekarriko luke. Isolamendua hobetzeko sistema horren erabilerak berokuntzaren eskaria murriztea eragiten du, eta horrek urtean 14.265,96 kWh aurreztea dakar, urtean 1.711,91 € aurreztuz. Metaketa horren amortizazio-aldia 83,59 urtekoa izango litzatekeenez, ez da gomendatu ezartzea. - Leiho aldaketa: Kiroldegiko eraikinak 338,16 m2-ko kristalezko azalera sinplea du gutxi gorabehera. Hau da, eraikinak duen kristalezko azalera osoaren % 16,43. Gutxi gorabeherako kostua 231,89 €/ m2 da, eta horrek 78.415,92 €-ko inbertsioa dakar. Urtean 106,70 kWh energia aurrezpena ekarriko luke, eta horrekin 10,93 € aurrezten dira. Amortizazio-aldia 100 urtetik gorakoa izango litzateke, eta, beraz, ez da gomendatzen neurri hori ezartzea. Aipaturiko beste bi udal eraikinen (Goizeko Izarra ikastola eta udaletxea) auditoretzetan isolamenduari begira ez da hobekuntza neurri zehatzik proposatzen. Auditoretzetan jaso denaren arabera inguratzaile termikoaren deskribapen eta azterketa zehatza egiteko, beharrezkoa da lokalen eraikuntza-proiektuetatik abiatzea, eta ez da eskuragarri egon energia-auditoretza hauek egiteko. Bi eraikin hauen energia-eskariak (erregaien kontsumoa gaur egun) murrizteko eta beraz isolamendua hobetzeko neurriak proposatzeko azterketa zehatza egin beharko litzateke.		
Arduradun nagusia	UDAL ARKITEKTOA ETA UDAL ARKITEKTO TEKNIKOAK		



Mutrikuko Udala



Beste arduradunak	-					
Epea	Hasiera urtea	2026	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	ALTUA		Aurreikusitako kostua (€)		Eraikinaren arabera €	
GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
Erlazionatutako plana:	-					
Oharrak	-					
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)		-	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		-	

Kodea	1.1.7	Ekintza	Energia-kontsumo altua dakarten berokuntza- eta argiteria-instalakuntzen mantentze-lanak areagotu eta egoerak aztertu, aldez aurretik fasekako plangintza bat prestatuz eta ondoren beharrezkoak diren zuzenketak eginez.			
Helburu Estrategikoa	1. UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN					
Programa	1.1. UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA AURREZPENA ETA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA					
Deskribapena	Energia-kontsumo altueneko udal eraikinetan berokuntza eta argiteria-instalakuntzetan auditoretzek proposatzen dituzten neurriak ezartzeaz gain, garrantzitsua izango da, bitartean eta ondoren ere instalakuntza hauek egoera onean mantentzeko lanak eta aurrekontua definitzea (programatzea).					
Arduradun nagusia	ENERGIA TEKNIKARIA ETA ELEKTRIKARIA					
Beste arduradunak	-					
Epea	Hasiera urtea	2025	Amaiera urtea	2030	Ekintza jarraitua?	EZ
Lehentasuna	ERTAINA		Aurreikusitako kostua (€)		€	
GJH	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
Erlazionatutako plana:	-					
Oharrak	-					
Sektorea	Udala		Aurrezpen energetikoa (kWh)		-	
Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea		Saihestutako isurketak (t CO ₂)		-	

Kodea	1.1.8	Ekintza	Udal-eraikinetan klimatizazio-berokuntza sistema eraginkorrakoak ezarri, instalazio zaharrenak lehenetsiz eta progresiboki erregai fosilen erabilera gutxituz.				
